



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

BI HAMARKADA INGURUMENAREN ALDE! DOS DÉCADAS EDUCANDO EN LA CULTURA DE LA SOSTENIBILIDAD

Badira bi hamarkada Egape ikastolak Eskolako Agenda programan parte hartzen duela, ingurumenaren hobekuntzarako konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatzeko asmoz. Horrela, ikasturtero proiektu ekosozialak lantzen ditugu gure ikasleekin (arropa, mugikor eta jostailu bilketak; adinekoen zentrorra bisitaldiak...). Era berean, ikasleentzat hiri hondakinen kudeaketarako tailerrak antolatzen ditugu. LHn eko-ordezkarien taldea eta DBHn Ostadar txiki taldea dira ingurumenaren aldeko ekimenak abian jartzen dituztenak.

Agenda 2030ek garapen jasangarriko 17 helburu orokor planteatzen ditu ingurumenarekin, gizarte gaiekin, garapenarekin... erlazionatutakoak. 2024-2025 ikasturtean herri mailan 11. GJH "Hiri eta Komunitate jasangarriak" lantzea zehaztu zen bi ikasturteetarako. Iazko ikasturtean herri eta ikastetxe mailako kultur aniztasuna aztertu genuen eta diagnostiko horretatik aurtengo kurtsoan herri mailan landu beharreko proposamenak aurkeztu zituzten ikasleek Udal Foroan.

Gainera, gure ikastetxean, HHLH eta DBHn, 18. helburuari, "Hizkuntza eta kultur aniztasuna," ere heldu genion; gure haur eta gazteak euskararengandik urruntzen ari direlako eta hizkuntzaren erabilera urtez urte gutxituz doala jabetuta gaudelako.

Hace dos décadas que Egape ikastola participa en el programa Agenda Escolar con el objetivo de fomentar actitudes y valores comprometidos con la mejora del medio ambiente. Así, cada curso trabajamos proyectos ecosociales con nuestro alumnado (recogida de ropa, móviles, juguetes; visitas al centro de mayores...). Asimismo, organizamos talleres de gestión de residuos urbanos para escolares. En Primaria es el grupo de eco-delegados y en la ESO el grupo Ostadar txiki los que ponen en marcha iniciativas a favor del medio ambiente.

La Agenda 2030 plantea 17 objetivos generales de desarrollo sostenible relacionados con el medio ambiente, temas sociales, desarrollo... El curso 2024-2025 se definió el 11º ODS "Ciudades y Comunidades sostenibles" a nivel de Urnieta para dos cursos. El curso pasado analizamos la diversidad cultural a nivel local y escolar, y desde ese diagnóstico el alumnado presentó en el Foro Municipal las propuestas a trabajar a nivel local en el curso actual.

Además, en nuestro centro, en Primaria y Secundaria, abordamos también el 18º ODS, "Diversidad lingüística y cultural"; porque somos conscientes de que el uso oral de nuestra lengua va disminuyendo año tras año y de que nuestros jóvenes se van alejando de ella.





“FAMILIAK IKASTOLAN” PROIEKTUA

Egape Ikastolako proiektu propioa den honetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiek parte hartzen dute. Horretarako, gelako familiak gonbidatzen ditugu beraiek aukeraturiko edo guk proposaturiko jardueraren bat egin edo aurkeztera.

Helburuak hauek dira:

- Familia eta eskolaren arteko harremana eta elkarlana sendotzea.
- Familiengan kultura partehartzaile bat sortzea, eskolan familiek duten partehartzea ohikoa bihurtuz.
- Familiekin harreman estu bat mantentzea.
- Familiek parte hartuko duten gelako dinamikak sustatzea.

Urteetan aurrera daramagun proiektua da eta esperientziak erakutsi digu ikasleek ilusio handiz hartzen dutela gurasoak gelan ikustea. Harrotasunez adierazten dute euren gurasoak direla etorri direnak eta horiek kutsatuta beste gelakideek ere gurasoak animatzen dituzte etortzera.

Izan ditugun familiak jarduera eta ekintza ugari egin dituzte, esaterako: erlezainak erlauntza erakutsi, mendi-eskiaren inguruko azalpenak eman, ipuinak kontatu, hainbat lanbide azaldu, plastika tailer desberdinak eman...

Aurtengo ikasturtean jada animatu da familia bat HH 5 urteko gelan ipuinak kontatzera. Ea hurrengoan nor animatzen den!! Gustura hartuko zaituztegu, Egapeko ateak zabalik dituzue!



EL PROYECTO “FAMILIAK IKASTOLAN”

Se trata de un proyecto creado en Egape Ikastola en el que participan todos los cursos de Infantil y Primaria. Para ello, invitamos a las familias a realizar en el aula alguna actividad de su elección o propuesta por la ikastola.

Los objetivos son los siguientes:

- *Reforzar la relación y colaboración entre la familia y la escuela.*
- *Impulsar la participación de las familias en la escuela.*
- *Mantener una estrecha relación con las familias.*
- *Promover dinámicas de aula en las que participen las familias.*

Es un proyecto de largo recorrido y la experiencia nos ha demostrado que el alumnado se toma con mucha ilusión ver a sus familiares en clase. Manifiesta con orgullo que son sus familiares los que han venido, y contagiados, los demás compañeros y compañeras también animan a los suyos.

Las familias que nos han visitado, han presentado muchas actividades, por ejemplo: la apicultora nos ha enseñado la colmena, nos han dado nociones sobre el esquí de montaña, nos han contado cuentos, explicado varios oficios, impartido diferentes talleres de plástica...

En este curso ya se ha animado una familia a contar cuentos en el aula de 5 años de Infantil. ¡A ver quién se anima la próxima vez! ¡Os recibiremos con gusto, las puertas de Egape están abiertas!

PENTAGRAMA ENEA MUSIKA ESKALAREN ETXEA

Bazen behin Urnieta izeneko herri bat. 1966. urtean, euskarazko heziketa ezinezkoa zela eta, guraso batzuen lanari esker, EGAPE IKASTOLA sortu zen. Antton izeneko mutikoa izan zen Egapen ikasi zuten “zorioneko” ume haietako bat.

Hogei urterekin, irakasle lanetan hasi nintzen bertan, eta garai haietan ikastolan eskulanak eta antzerkia erakusten zizkigun Lurdes Iriondok antzerkiaren harra sartu zidala pentsatu izan dut beti. Hasieran tutore aritu nintzen, bai eta bost urtez zuzendari ere, eta, Bilbon musika espezialitatea egin ondoren, musika irakaskuntzan murgildu nintzen. Nire betiko erronka ikasleek, ikasteaz gain, nire gaiarekin eta, nola ez, nirekin gustura eta zoriontsu sentitzea izan da. Batzuetan lortu dut, beste batzuetan ez.

Musika “bizi” egin behar da, zalantzarik gabe, baina irakurtzen jakiteak ate asko irekitzen dizkigu. Francisco Mora neurozientzialariak diotenari jarraituz, “jolasa irakaskuntzaren mozorroa da.” Musika notazioa lantzeko, PENTAGRAMA ENEA ipuin pedagogikoa sortu nuen duela 30 urte inguru. Egia esan, ikasleen presiopean izan zen, “Solferino” izeneko pertsonaia asmatu ondoren, ipuinak nola jarraitzen zuen eskatzen baitzidaten.

Hogeita hamar urte luze pasatu dira, eta “nire etxeak” herriaren mugak gainditu eta Euskal Herriko ikastetxe askotan erabiltzen dela esan dezaket harrotasunez (harrokeriarik gabe). Nire ikasleek, hiru urterekin, badakite non bizi diren SOLFERINO alkate harroputza eta munduko futbolari hoberena den MIKEL MINALI. Lau urtekoek LAXARO AITONA, SIMON SIRENAJOLEA eta REPE ROKERA... Eta horrela eskala osoa. Bigarren mailan txirularekin hasten direnean, eta beranduago harmonikarekin eta ukelelearekin hasten direnean, gai dira partitura irakurtzeko eta oinarriko interpretazioak egiteko.

PENTAGRAMA ENEA LA CASA DE LA ESCALA MUSICAL

Érase una vez un pueblo llamado Urnieta. En 1966, debido a la imposibilidad de la enseñanza en euskera, y gracias al trabajo de algunas familias, se creó EGAPE IKASTOLA. Antton fue uno de los niños “afortunados” que estudiaron en Egape.

A los veinte años empecé a trabajar como profesor y siempre he pensado que Lourdes Iriondo, que en aquellos tiempos nos enseñaba manualidades y teatro en la ikastola, me incrustó el gusanillo del teatro. En un principio trabajé como tutor, en la dirección durante cinco años y, tras hacer la especialidad de música en Bilbao, me dediqué en exclusiva a la enseñanza musical. Mi reto de siempre ha sido que el alumnado, además de aprender, se sienta a gusto y feliz con la música, y cómo no, conmigo. A veces lo he conseguido, otras no.

Hay que “vivir” la música, sin duda, pero leer una partitura nos abre muchas puertas. Como dice el neurocientífico Francisco Mora, “el juego es el disfraz del aprendizaje”. Para trabajar la notación musical creé hace unos 30 años el cuento pedagógico PENTAGRAMA ENEA. Lo cierto es que fue bajo la presión del alumnado que, tras mostrarles un personaje llamado “Solferino”, me pedían que siguiera contándoles ese cuento, que en realidad no existía.

Han pasado treinta largos años y puedo decir con orgullo (sin arrogancia) que “mi casa” traspasa los límites del pueblo y se utiliza en muchos colegios de Euskal Herria. Mis alumnos y alumnas, a los tres años, saben dónde viven el arrogante alcalde SOLFERINO y el mejor futbolista del mundo, MIKEL MINALI. El abuelo LAXARO, el sirenero SIMON Y REPE la rockera... Y así toda la escala. Cuando empiezan en segundo curso con la flauta, y más tarde con la armónica y el ukelele, pueden leer la partitura y hacer interpretaciones básicas.

PENTAGRAMA ENEAREN

“arkitektoa” erretirotik gertu dela eta, amets bat gauzatzeko egitasmoa darabilt buruan; ipuinaren berritzea, aktoreekin eta bi hizkuntzatan, euskaraz eta gazteleraz... eta hala bazan hala ez bazan, sar dadila Buruntza azpiko leizean.



Con motivo de la jubilación del “arquitecto” de PENTAGRAMA ENEA, trabajo en pos de un sueño: la renovación del cuento, con actores y actrices, y en dos idiomas, en euskera y castellano... y si no es así, que entre en la sima bajo el Buruntza.

EGAPE IKASTOLA

urnietarron

eskola

publikoa



943009275 HLH/EIP

943899425 DBH/ESO

www.egape.eus



Ezagutu gaitzazu!
¡Ven a conocernos!



Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus

